

Kaixo auzokideok,

Zorrotzako Auzo Elkarteak 40. urteurrena aurten ospatu duelako, jaien pregoia irakurtzeko ohorea eman digu Jai Batzordeak.

Ezer baino lehen Jai Batzordeko jendeari, baita Taldeen Koordinakundekoei ere, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, ez bakarrik gurekin gogoratu direlako, baita ere jaien prestaketarako urtetik urtera jartzen duten gogoia, denbora eta ahaleginagatik. Haiei esker, eta Udalaren laguntza eskasaren gaineratik pasatuz, urtez urte auzokide guztiok badugu non eta noiz dibertitu egitaraua gustu guztiei begira egina dago eta.

Era berean azpimarratu eta eskertu nahi dugu hainbat merkatariren laguntza ekonomikoa eta hainbat auzokideren prestutasuna, jaiak ondo ateratzeko ezinbestekoak direnak.

Iruditu zaigu abagune hau egokia dela omenaldi zintzo bat egiteko Elkartearen lehenengo harria ipini zuten gizon eta emakumeei 1969ko otsailaren 11 urrun batean. Gogobetez eta zailtasunez gaindi, parrokiako lokaletan bildu ziren auzoari zabalik dagoen elkarte bat martxan jartzeko, helburutzat auzotarron bizi kalitatea hobetzeko borroka egitea zutelarik.

Gaur egun Auzo Elkartekideok saiatzen gara orduko gogoia eta kemenari eusten denontzako auzo hobe baten bidean. Eta baliatu nahi dugu une hau auzotar orori gonbita luzatzeko behar honetan parte har dezazuen, hori izango baita omenaldirik onena Elkartearen sortzeko eta bizirik irauteko parte hartu duten zorrotzarrei.

Baina jaiak hasia da orain guztiok nahi duguna eta txupina entzutea baino ez dugu nahi.

Beraz, bidea emango diogu musikari, dibertsioari, askatasunari eta umore onari auzoko bazter guztiak, gauez zein egunez, bete ditzaten.

Aupa Zorrotza! Eutsi goiari!

Gora Zorrotzako jaiak!



zorrotza
auzo elkartea
asociación vecinal

2009ko iraila